

2008-2009 Ikasturterako Deialdi Orokorra

BALDINTZAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

EKONOMI BALDINTZAK

1. ADJUDIKAZIO BERRIA

Ezin izango dira ondoko errenta-mugak gainditu:

A) FAMILIAREN IRABAZI GARBIAK (21. artikulua)	1. ERRENTA-MUGA	2. ERRENTA-MUGA
	(eurora bitartean)	(eurora bitartean)
Kide konputagarri 1eko familiak	11.522	14.310
2 Kide konputagarriko familiak	18.768	24.427
3 Kide konputagarriko familiak	24.647	33.155
4 Kide konputagarriko familiak	29.235	39.375
5 Kide konputagarriko familiak	33.176	44.010
6 Kide konputagarriko familiak	36.982	47.510
7 Kide konputagarriko familiak	40.580	50.971
8 Kide konputagarriko familiak	44.154	54.416

B) ONDARE-MUGAK (24. artikulua)

Eskatzaileen famili ondareak ezin izango ditu gainditu gehienezko muga hauek:

- HIRI-FINKAK: Ohiko etxebizitza ez den hiri finken katastro balioen batuketak ezin izango du 41.600 euroko zenbateko gainditu. Katastro balioak berrikusita dituzten Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoen kasuan 0,6 eta 0,3 koefizienteak aplikatuko dira hurrenez hurren, Gasteiz eta Donostiako berrikusitako udalerrietan izan ezik zeinetan 0,25 aplikatuko da.

- LANDA-FINKAK: konputagarri den kide bakoitzeko, 12.756 euroko balio katastrala.

- BALORE HIGIGARRIAK: 1.922 euroko kapital mugikorraren etekin garbia (familia unitateari dagozkion ondare irabazi eta galeren arteko diferentzia ere gehitu egiten da).

Familiak ondare-elementu bat baino gehiago izanez gero, horietako bakoitzaren balioaren ehuneko kalkulatuko da, dagokion errenta-mugaren arabera. Beka ukatua izango da ehuneko batuketaren ehunetik gorakoa denean.

Ondare balioen zenbaketa egiteko aplikagarri izango da %50eko kenketa, mantentzaile nagusia edo bere ezkontidea ez diren kide konputagarrien ondare elementuen balioan.

C) JARDUERA EKONOMIKOAK (24. artikulua)

Eskatutako dirulaguntza ukatu egingo da familiako kide konputagarrietako bat 2007an 166.310 eurotik gorako fakturazio-bolumena izan zuen ekonomi jarduera bateko titularra baldin bada.

2. BEKAREN BERRIZTAPENA

Beka lortu zeneko egoera sozio-ekonomikoa 2007.ean, funtsean, aldatu ez bada, ikasle horiek ziklo berean beka berri ahal izango dute.

Administrazioak aitorten horiek egiazta ditzake. Funtsezko aldaketa izan dela ulertuko da 2007ko ekonomi egoerak 2008-2009 ikasturteko beka emateko parametroak %10ean edo gehiago gainditzen baditu.

IKASKETA-BALDINTZAK (26. artikulutik 38.era)

1. Beka lortzeko, ikasleak gutxienez titulazio edo espezialitate bakar bateko ikasgai- edo kreditu-kopuru batean matrikulatuta egon beharko du 2008-2009 ikasturtean. Gutxienerako kopuru horrek gorabeherak izango ditu, ikasketen arabera:

-GRADUKO IKASKETAK ETA MASTER OFIZIALAK: 60 kreditu

-GAINERAKO UNIBERTSITATE-IKASKETAK EDO GOI-MAILAKOAK: Kredituka egituratutako ikasketa-planetan, kreditu-kopurua zehazteko, formula hau aplikatuko da: ikasketa-planeko kreditu guztien ehuneko laurogeita bost zati ikasketa-plan horretarako aurreikusitako ikasturte-kopurua. (33. artikulua)

2. Beka lortzeko, gainera, eskatzaileak emaitza hauek lortu behar izan ditu aurreko ikasturtean:

-MASTER OFIZIALAK: masterrera iristeko ikasketen lehenengo urtean batez beste 6 atera behar da (ikasketa teknikoetan, 1,17ko koefizientea aplikatuko zaio lortutako batez besteko notari). Bigarren ikasturtean, gainditu egin beharko dira aurreko ikasturtean matrikulatutako kreditu guztiak.

- GRADUKO IKASKETA ETA GAINERAKO UNIBERTSITATE-IKASKETAK: Ikasketa teknikoetan, gainditu gabeko kreditu-kopuruak ezin izango du gainditu matrikulatutako kredituen %50. Gainerako ikasketetan, berriz, ezin izango da gainditua aurreko ikasturtean matrikulatutako kredituen %35. Eskatzaileak ezin izango du gainditu gabeko krediturik izan, baldin eta aurreko ikasturtean eskatzailea ez bada matrikulatu 33. artikuluan horretan adierazitako gutxienerako matrikula-kopuruan. Dena den, salbuespena egiten da ikasketa diferenteetarako orokorrean xedatutakoa aplikatuta ateratzen den kreditu-kopuruaren bestekoa edo handiagoa denean gainditutako kreditu-kopurua.

3. Konbalidatutako edo egokitutako kredituak, ez dira kontuan hartuko inolako ondoriotarako.

4. Karrera amaierako Proiektuari dagokionez, derrigorrezkoa izango da karrerako ikasgai guztiak 2006-2007 ikasturtean gaindituak izatea, eta urte berean Eusko Jaurlaritzako beka eduki izana, izaera orokorreko beketarako deialdiaren babesean.

5. **Bertaratu gabeko unibertsitateetako** ikasleek gutxienez hiru ikasgaitan edo hogeita hamabost kreditutan matrikulatu beharko dute, eta beka lortzeko denak gainditu beharko dituzte. Ikasgai edo kreditu gehiagotan matrikulatuz gero, guztiak izango dira kontagarri ikasketa betebeharren baloraziorako.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA (10. artikulutik 16.era)

A) Konpentsaziozko laguntza: familia errenta hurrengo muga baino baxuago edo berdina duten ikasleentzat:

Kide konputagarriak	Errenta-muga (Euroak)
1	3.548
2	6.847
3	9.978
4	13.086
5	16.187
6	19.220
7	22.184
8	25.081

Zenbatekoa: **2.500** euro.

B) Bizilekuaren eta ikastegiaren arteko distantziaren araberako laguntza.

<u>euro</u>	UHUN	<u>euro</u>
5etik 10 kilometrora.....	188	
10 km baino gehiagotik 30era.....	378	378
30 km baino gehiagotik 50era.....	748	
50 km baino gehiagokoa.....	974	

Egoitza**3.146** € (Famili errentak 1. errenta-mugan adierazitakoekin berdinak edo txikiagoak badira)
.....**2.849** € (Famili errentak 1. errenta-mugan adierazitakoekin baino handiagoak eta 2. errenta-mugan adierazitakoekin berdinak edo txikiagoak badira)

C) Hiri barneko garraiorako laguntza.

Zenbatekoa: **181** euro.

D) Ikasketetarako beharrezko diren eskola-materialetarako laguntza.

Zenbatekoa:**301** € (Famili errentak 1. errenta-mugan adierazitakoekin berdinak edo txikiagoak badira)
.....**235** € (Famili errentak 1. errenta-mugan adierazitakoekin baino handiagoak eta 2. errenta-mugan adierazitakoekin berdinak edo txikiagoak badira)

Bekaren guztizko zenbatekoa, ikasle bakoitzak eskubidea izan dezakeen A), B), C) eta D) osagaien batura izango da.

E) Karrera-amaierako Proiektua:

Zenbatekoa: **537** euro.

Bekadunek, 2008-2009 ikasturterako ezarririk dauden irakaskuntza zerbitzuengatikiko prezio publikoetarako laguntzarako eskubidea ere izango dute. Prezioak, Administrazioak ordainduko dizkio Unibertsitateari zuzenean. Laguntza horrek 2008-2009 ikasturtean matrikulatu deneko irakasgai edo kreditu guztiak hartuko ditu, beti ere titulazio eta espezialitate bakarrari dagozkienean eta dagokion titulua lortzeko beharrezkoak direnean. Bigarren zikloko irakaskuntzetan sartzeko beharrezkoak diren osagarriak ere hartuko ditu.

OHARRA: Argibide gehiago behar izanez gero, begiratu deialdiaren Agindua, inprimaki honetan ez baita informazio oso-osoa agertzen.